

# Semealabak

Getxoko Gurasoen Eskolako aldizkaria • Ekaina 2009 • 22. ZK

## Egunerokoa

Aste honetan gozatzen ari naiz ikastolan. Osasunaren astea denez, ez dugu ohiko klaserik. Gaur, asteazkena, monitore taldea etorri da etxeko lanak nola egin irakastera.

Bitxia iruditu zait etxean egiten dudana egiteko klasera etortzea, baina gero ulertu dut zergatik egin dugun.

Taldetan banatu eta txokoetan egin dugu lan, txikitan bezala. Mutilak mutilekin eta neskek neskekin jarri gaituzte. Guk etxekoan dreek egiten dituzten lanak -hori da esan digutena- egin behar genituen: garbitu, erraztu, txukuindu, lixatu, janaria prestatu...

Neskek entxufeak konpontzen, koadroak zintzilikatzen eta antzeko gauzak egiten igaro dute goiza.


Harrituta geratu naiz. Aitorrek, Mikelek eta Jontxuk sekula ez zuten lixatu, ezta beren gela erraztu ere. Egia esan barre egin dugu. Mikel plantxarekin erre egin da. Aitorrek lapikoak garbitzean lurra urez beteta utzi du... penagarria izan da.

Ondoren, janaria prestatu behar izan dugu. Nire amak irakatsi bezala, patata-tortilla goxo-goxoa egin dugu. Jontxuk gaur bertan etxean afaltzeko egin behar zuela esan du.

Etxean denok laguntzen genuela uste nuen, baina hori ez dela horrela ohartu naiz. Beren ohea eta gutxi gehiago egiten dute besteek. Amaieran monitoreekin hitz egiten aritu gara eta etxean hain gutxi laguntzea ez dela bidezkoa adostu dugu.

Nire aitak komunak garbitzen dituela, landareak ureztatzen dituela eta gurekin denbora gehien igarotzen duena dela kontatu diet, eta ama, berriz, brikolaje-lanetan aditua dela esan diet. Aurreko batean etxeko atearen sarraila aldatu zuen, giltza barruan apurtu zelako.

Monitoreek horrelako gurasoak izateagatik zorteduna naizela esan didate. Oso harro sentitu naiz.





## Hitz egin dezagun sexualitateaz

**G**izon eta emakumeen jokaerazko eredu tradizionalak aldaketa-prozesuan dauden garaia bizi dugu. Faktore sozial, kultural eta ekonomikoek gizonetzkoek etxeko lanetan gero eta gehiago parte hartzea eta emakumezkoek jarduerak etxetik kanpo, lan-merkatuan, garatzea eragiten dute.

Horrek guztiak genero bakoitzaren jokaerazko ezaugarri tradizionalak aldatzea dakar. Horren adibide argia, heziketa-mailan eta seme-alabekin lotuta, proposatzen diren jolas eta jardueretan islatzen da; hau da, generoaren arabera jolasik eta jostailurik ez dagoela azaltzeko ahalegina.

### **Desberdintasuna**

Familiaren barruan, oro har, oraindik ere, nahiz eta okerra izan, haur eta nerabe neskengan sentikortasuna, mendekotasuna eta afektibitate sustatzeko joera dago; mutilengan aldiz, oldarkortasuna, lehiakortasuna, independentzia.... Generoari dagozkion estereotipo horiek, gizon eta emakumeen arteko harremanen desberdintasune-

tan oinarrituta antolatutako gizar-tearen emaitza dira.

Desberdintasun hori heziketa afektibo-sexualean ere agertzen dela kontuan izatea garrantzitsua da. Heziketa hori seme-alabak jaiotzen direnean hasten da eta sexualitatea pertsonaren zati denez, etengabe sexualitatean hezten dira ohartu gabe.

### **Balioak transmititu**

Pertsonarekiko errespetua eta antzeko beste balio batzuk transmititu eta irakasten dira, gizonetzko eta emakumezkoen rola, bikoteen eta sexu ezberdineko pertsonen arteko komunikazio-ereduak, esate baterako: erabakiak nola hartu, gatazkak nola ebatzi...

Seme-alabei etxeko lan guztietan laguntzen irakastea –neska ala mutila izateak ardurarik izan gabebezain garrantzitsua da sexuharremanei edo masturbazioari buruz hitz egitea ere.

Egun, heziketa afektibo-sexuala, orokorrean eta esplizituki, familian hasten da, lehenengo zalantzak sortzen direnean. Zalantza horiek anatomiarik eta fisiologiari

buruzkoak izan ohi dira. Beraz, gai horiei ematen zaizkien erantzunak adinaren arabera izango dira.

Lau edo bost urteko haurren galdera inuzenteei azalpen afektiboekin erantzungo zaie: "aitak eta amak elkar maitatu eta haurra izaten dute". Batzuetan horrekin nahikoa izaten da, ez baitute interes gehiago agertzen.

Adin hori duten haurrei azalpen osatuagoak eman diezazkiekegu, baina kontuz ibili behar da, galdeztzean ez zuten zalantza-egoerarik ez sortzeko.

### **Azalpen zientifikoa**

Aurrerago, gaia ikastetxeetan landu eta erantzun praktikoagoa eskatzen dutenean, afektibotasuna ia erabat desagertu eta azalpen zientifikoa ematen zaie. Testikuluek, obuluek, espermatozoideek... eta, batez ere, ugalketaz hitz egiten zaie. Sexualitateak pertsonen arteko harremanarekin, komunikazioarekin, sentimendu eta afektuen adierazpenarekin eta gozamenarekin duen lotura bereizi eta koi-toaren gertakari fisiologikoarekin oker lotzen da.

Kontu handia izan behar da; ez da parekatu behar heziketa afektibo-sexuala haurrak nola sortzen diren azaltzearekin. Hori dela eta, akats larria da heziketa hori zortzi, bederati edo hamar urterekin hasi eta elkarriketa "hori" izatean amaitzen dela pentsatzea.

### **Erantzunen bila**

Heziketa sexualari dagokionez, gaia jorrazteko hainbat modu tradizional daude. Lehenengoa jaiotzetik nerabezaroa hasi bitartean gertatzen da. Zenbait gairen inguruan hitz egiteko gaztegiak direla pentsatzen da. Ondorioz, erantzunak etxetik kanpo bilatzen dituzte eta gurasoekin horri buruz ez hitz egiteko joera hartzen dute.

Lehenengo hori bigarren batekin osatzen da. Nerabezaroa hasten denetik guraso askoren ustea da egun nerabeek informazio asko edo gehiegi dutela eta behar duten guztia dakitela pentsatzea. Gurasoengandik jaso al dute, ordea, informazio hori guztia? Erantzunik ohikoena ezezkoa da.

Gai horiei dagokien tratamenduari dagokionez aldeak sortzen dira, gainera. Alabekin, esate baterako, hilerokoarekin lotutako gaiak jorrazten dira. Semeekin, aldiz, orokorrean ez dira gai horiek lantzen.

### **Galderak**

Sexualitatearen tratamenduan hirugarren okerra uste faltsua galdetuko ote dituzten zain egotea da, seme-alabek beren trebakuntza-prozesua zuzenduko balute bezala. Seme-alaba askok ez dute inoiz galderarik egiten edo oso galdera gutxi egiten dituzte.

Gurasoei ez galdetzeko arrazoi ugari daude. Izan liteke aurreko esperientzia negatiboren batengatik, hau da, erantzun argirik jaso ez izana, erantzunarekin erasota sentitu izana edo pertsona heldua une txarra pasatzen zebilela ohartu izana (gorritzea, jarritako aurpegia, urduritasun-keinuak).

Sexu-heziketaz ondorio larriagoak dituen balio eta esperientzia afektiboen sistematik bereiztea. Horrek ez du esan nahi gurasoek balio horiek ez dituztenik. Izan badituzte, baina zaila egiten zaie hitzez adieraztea.

Askotan nerabeek egindako galdera soil batek erantzun garbirik gabe utz zaitzakete. Beste batzuetan, berriz, gure iritzia eman behar genukeen egoeretan, ez dugu hala egiten nola hasi ez dakigulako.

### **Telebista**

Balioek eta esperientzia afektiboek parte hartzen duten egoera ugari eskaintzen dituen hezitzaile garrantzitsua da telebista. Seme-alabek behin eta berriro errepikatzen diren egoerak ikus ditzakete. Adibidez: anaia zaharra lagunekin kalera irteten den bitartean anaia gaztea zaintzeaz arduratzen den arreba nerabearen historia. Positiboki hezteak iritzia eman eta hitz egitea eskatzen du. Isilik egotearekin jarrera horiek egoki eta positibo gisa onartzen diren itxura eman daiteke.

### **Aurre hartzea**

Funtsezkoa da aurretik prestatu eta galderarik ohikoenen erantzunak aurrez ikustea. Aurretik horri buruz pentsatu baldin bada, errazagoa suertatzen da. Baliteke seme-alabek aukeratutako


egoera, unea eta lekua erantzuteko egokienak ez izatea.

Hala eta guztiz ere, erantzun egin behar da orduan ere.

Azken finean, sexualitatea "ikasgaia" denez, eta zu, berriz, familian gaia irakatsi behar duen pertsona, prestatu, programatu eta "klaseak eman" behar dituzu. Ez itxaron inoiz unea iritsi arte, zeren eta, iristear dagoela dirudienean, oharkabean esku hartzeko aukerarik gabe igaro egin dela jabetuko zara. Ondorioz, heziketa hori inoren esku gera daiteke.

### **Errespetu eta konfiantza**

Hortaz, heziketa afektibo-sexualari dagokionez, oso elementu garrantzitsua da konfiantza eta pertsonen arteko errespetuan oinarritutako harreman positiboa garatzea. Horri esker, normalean lantzen ez diren edo lantzeko oso zailak diren gaiak arinago eta konfiantza gehiagorekin landuko dira. Horrela, seme-alabek hitz egin, galdetu eta partekatzeko aita, ama edo biak erreferentziatzeko pertsonak izatea lortuko da.





## HEZIKETA AFEKTIBO-SEXUALAREN ETA SEXU TRANSMISIOZKO GAIXOTASUNEN (STG) PREBENTZIORAKO HEZKUNTZA PROGRAMA

Seme-alaba gazte edo nerabeak baldin badituzu, seguru asko Gurasoen elkarteek Udal prebentzio-zerbitzuaren laguntzarekin kudeatu eta duela 12 urtetik Getxon ematen diren ikastaroak jaso ahal izan dituzte.

Ikastaro horiek hamalau edo hamaibost urteko bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendutakoak dira. Nerabeekin esperientzia handia duten sexologoek parte hartzen dute eta hiru edo lau saiotan lantzen dituzte edukiak taldeko jolas eta dinamiken bidez.

Hauek dira programaren helburuak: alde batetik, sexualitatearen gaia maila

afektibotik eta errespetutik abiatuta landuz heziketa sexualaren ezagutzak eta prestakuntza zabaltzea. Bestetik, sexu-transmisiozko gaixotasunak ezagutzea, bereziki prebentzioa landuz.

Sexualitatearekin lotutako mitoak, beldurrak eta lotsak argitzen ahalegintzen dira.

STGei dagokionez, jarrera arriskuetsuek ekar ditzaketan ondorioak aztertzen dira. Horrez gain, HIESa aztertzen da bereziki, eta horri buruzko informazioa ematen da: gaixotasunaren aldiak, transmisio-bideak eta prebenitzeko moduak.

## Irakurriz ikastea...

Etsekoei ez diet esaten... "haiek ohartu gabe berandu oheratzen naizela", "haiek ez daudenean anaia zirikatzen dudala", "litroak edaten ditudala", "batzuetan mezatara joaten naizela", "Interneten pornoa erosi eta ikusten dudala", "noizean behin haien sinadura faltsutzen dudala", "aita izateko zorian izan nitzela"...

Seme-alabek gurasoei kontatzen ez dietena liburu honetan modu anonimoan kontatzen dute.

Seme-alabek gezurrak esaten dituzte eta zenbait gai ezkutatu eta saihestu egiten dituzte gurasoen erreakzioak mesederik ez dietela egingo dakitelako. Honakoa esanez zurrizten dute beren burua: "Gurasoengan konfiantza gehiago izatea gustatuko litzaidake, baina badakit ezin dudala; izan ere, gertatzen zaidan guztia

jakingo balute... ez nintzateke sekula etxetik aterako!"

"¿Qué ocultan nuestros hijos?" liburuan neska-mutilek egoera ugari erakusten dituzte, familia eta testuinguru bakoitza desberdina baita.

Lanak seme-alaba eta gurasoei -ikastetxe pribatu, publiko eta institututakoei eta hiri nahiz landakoei- egindako galderen 5.000 erantzun aztertzen ditu. Datu horiek aztertuz, egileak nerabeek ezkututzen dituzten sekretuak azaleratzen ditu, familietako gezur eta tabuak zein diren identifikatzen du, baita gurasoek isilean gordetzen dutena agertu ere.

Egileak dio "guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa sendotzea" dela bere xede nagusia. Era berean, gazte izan zirela ahaztu dutenen oroimena freskatu nahi du.

Urria, Javier. «¿Qué ocultan nuestros hijos?». Argitaletxea: La Esfera de Los Libros.

